



Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailearen 12ko 6/2005 Foru Arauak:

1/2023 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudian presazko zerga aldaketa batzuk sartzen dituena

De conformidad con lo previsto en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

Decreto Foral-Norma 1/2023, de 18 de abril, por el que se introducen diversas modificaciones tributarias de carácter urgente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa

**OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUKO FORU DIPUTATUA
EL DIPUTADO FORAL DEL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**



Araugintzako ebaluazio txostena

1/2023 Foru Dekretu-Araua, apirilaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudian presazko zerga aldaketa batzuk sartzen dituena

Sarrera

Honako aldaketak onartu ziren

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga

Salbuetsita jotzen da 200 euroko zuzeneko laguntza, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez emana, Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko eta La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeko neurriei eta beste kalteberatasun-egoera batzuei buruzkoa.

Informe de evaluación normativa

Decreto Foral-Norma 1/2023, de 18 de abril, por el que se introducen diversas modificaciones tributarias de carácter urgente en el Territorio Histórico de Gipuzkoa

Introducción

Se aprobaron las siguientes modificaciones

Impuesto sobre la renta de las personas físicas

Se declara exenta la ayuda directa de 200 euros concedida por el Real Decreto-ley 20/2022, de 27 de diciembre, de medidas de respuesta a las consecuencias económicas y sociales de la Guerra de Ucrania y de apoyo a la reconstrucción de la isla de La Palma y a otras situaciones de vulnerabilidad.



Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 70. artikulua aldaketak sartu zituen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aplikatuz, lurralde historikoek abeltzaintza, meatzaritza, industria, merkataritza, zerbitzu, lanbide eta arte arloetan lurralde erkidean erabiltzen den sailkapen berbera erabili behar dute, nahiz eta sailkapen zehatzagoa ere egin dezaketen, hala nahi izanez gero.

Horregatik, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek onartu ziren:

- 1.761.2 (Telefonia mugikorreko zerbitzua) epigrafeko tarifa eguneratzea. Ezabatu egiten da probintziako kuota (632,11 euro 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko /

Impuesto sobre actividades económicas

El artículo 70 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, introdujo diversas modificaciones en las tarifas del impuesto sobre actividades económicas con efectos desde el 1 de enero de 2023.

Por aplicación de la Ley 12/2002, de 23 de mayo del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, los Territorios Históricos deberán utilizar la misma clasificación de actividades ganaderas, mineras, industriales, comerciales, de servicios, profesionales y artísticas que en territorio común, sin perjuicio del mayor desglose que de las mismas pueda llevarse a cabo.

Por ello, se aprobaron, con efectos a partir de enero de 2023, las siguientes modificaciones:

- Actualizar la tarifa del epígrafe 1.761.2 (Servicio de telefonía móvil). Se elimina la cuota provincial (632,11 euros por cada 1.000 abonados o fracción / 649,16



649,16 euro antena bakoitzeko). Eta Estatuko kuota berezia, 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko 632,11 euro / 649,16 euro antena bakoitzeko izatetik, 137,48 euroko kuota izango da 1.000 abonatu edo zatiki bakoitzeko.

- 1.848 taldea (Zerbitzu integralak) berregituratzea eta 1.848.2 epigrafe berri bat sortzea, bulego malguko zerbitzuen, “coworking” guneen eta negozio zentroen tributaziorako.
- 2.86 taldearen izena aldatzeaz gain, «Lanbide liberal, artistiko, literario eta kulturalak» izena hartuko du, bi talde berri sortuko dira: 2.864 (idazleak eta gidoilariak) eta 2.869 (hirugarren sekzioan sailkatu gabeko jarduera artistiko eta kulturekin lotutako beste profesional batzuk).
- 2.889 talde berria gehitu da (Mendiko gidariak).
- 3.034 talde berria gehitu da (musikagileak, letristak, eta musika moldatzaile eta egokitzaileak).
- Reestructurar el grupo 1.848 (Servicios integrales) y crear un nuevo epígrafe 1.848.2 para la tributación de los servicios de oficina flexible, “coworking” y centros de negocios.
- Además de modificar el nombre de la agrupación 2.86, que pasa a denominarse “Profesiones liberales, artísticas, literarias y culturales”, se crean dos nuevos grupos: 2.864 (Escritoras y escritores y guionistas) y 2.869 (Otras y otros profesionales relacionados con las actividades artísticas y culturales no clasificadas en la sección tercera)
- Se añade un nuevo grupo 2.889 (Guías de montaña).
- Se añade un nuevo grupo 3.034 (Compositoras y compositores, letristas, arreglistas y adaptadoras y adaptadores musicales).



Zergen foru arau orokorra

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari (SEPE) datuak lagatzeko erregulazioa gehitzen da, hark zehatz dezan etxeko zerbitzurako langile bat kontratatzen duten pertsonen eskubidea dutela Gizarte Segurantzako Etxeko Langileentzako Sistema Berezian aplikatu daitezkeen kotizazio-hobari jakin batzuk jasotzeko.

Sortutako ondorioak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga – 200 euroko diru-laguntzaren salbuespena

Oro har, laguntza hori jasotzeko baldintzak hauek ziren: 1) bizikidetzaren unitatearen 2022ko urteko diru-sarrera gordinak 27.000 eurotik beherakoak izatea; 2) 75.000 eurotik beherako ondarea izatea, ohiko etxebizitza kontuan hartu gabe; 3) ez jasotzea Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrera (BGDS) edo Gizarte Segurantzaren pentsiorik edo antzekorik; 4) 2022an jarduera bat egin izana norberaren edo besteren kontura, eta, horren ondorioz, alta emanda egotea Gizarte Segurantzaren edo mutualitatearen dagokion araubidean.

Norma foral general tributaria

Se incorpora la regulación de la cesión de datos al Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE), para que esta determine el derecho de las personas que contraten a una persona trabajadora al servicio del hogar a determinadas bonificaciones en la cotización aplicable en el Sistema Especial para Empleados de Hogar de la Seguridad Social.

Efectos producidos

Impuesto sobre la renta de las personas físicas – exención de la ayuda de 200 euros

A grandes rasgos, las condiciones para poder percibir dicha ayuda eran: 1) que los ingresos anuales brutos en 2022 de la unidad convivencial fuesen inferiores a 27.000 euros; 2) que tuvieran un patrimonio inferior a 75.000 euros, sin tener en cuenta la vivienda habitual; 3) que no percibieran ni el Ingreso Mínimo Vital (IMV) ni cobrasen una pensión de la Seguridad Social o similar; 4) que en 2022 hubieran realizado una actividad por cuenta propia o ajena por la cual estén dados de alta en el régimen



Laguntza hori 2023/02/15etik 2023/03/31ra bitartean eskatu ahal izan zen. 15.986 eskaera jaso ziren, eta osatu gabeak, bikoiztuak., garbitu eta ezabatu ondoren 14.196 pertsonari zegozkien. Kopuru horretatik 14.103 onartu ziren (%99,3). Guztira emandako laguntzen zenbatekoa 2.820.600 eurokoa izan zen.

Laguntza hori salbuesita geratzen da 2023ko ekitaldi fiskalerako. Salbuespen horren zerga-bilketa eragina ezagutzeko, beharrezkoa litzateke ekitaldi horretako aitortzen datuak ezagutzea, baina txosten hau egin den egunean oraindik ez da amaitu aitortzen horiek aurkezteko epea.

Analisi hori 2022ko PFEZaren datu fiskalekin eginez gero, laguntzaren salbuespenaren zerga-bilketa eragina 352.904 eurokoa dela kalkulatu da.

correspondiente de la Seguridad Social o mutualidad.

La solicitud de dicha ayuda se podía efectuar entre el 15/02/2023 y el 31/03/2023. Se recibieron 15.986 solicitudes, que una vez depuradas y eliminadas las incompletas, las duplicadas... correspondían a 14.196 personas. De ese total se aceptaron 14.103 (99,3%). El importe total de las ayudas concedidas fue de 2.820.600 euros

Dicha ayuda queda exenta para el ejercicio fiscal 2023. Para conocer el efecto recaudatorio de dicha exención sería necesario conocer los datos de las declaraciones de dicho ejercicio; pero a fecha de elaboración de este informe todavía no ha finalizado el plazo de presentación de esas declaraciones.

Realizando ese análisis con los datos fiscales del IRPF de 2022, se ha calculado que el efecto recaudatorio de la exención de la ayuda es de 352.904 euros.



Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Aldaketa 1.761.2 (Telefonia mugikorreko zerbitzua) epigrafeko tarifan

Onartutako aldaketek ez dute aldaketarik eragin epigrafe honengatik ordaindu beharreko kuotetan.

Epigrafe berriak

Indarrean sartu zirenetik, honako jarduera kopuru hauek eman dira alta:

1.848.2 - bulego malguko zerbitzuen, "coworking" guneen eta negozio zentroak : 14

2.864 - idazleak eta gidoilariak: 76

2.869 - Hirugarren sekzioan sailkatu gabeko jarduera artistiko eta kulturekin lotutako beste profesional batzuk: 13

2.889 - Mendiko gidariak: 12

3.034 - Musikagileak, letristak, eta musika moldatzaile eta egokitzaileak): 12

Impuesto sobre actividades económicas

Cambios en la tarifa del epígrafe 1.761.2 (Servicio de telefonía móvil)

Las modificaciones aprobadas no han supuesto ningún cambio en la cuotas a pagar por este epígrafe.

Nuevo epígrafes

Desde que entraron en vigor, el número de actividades dadas de alta han sido los siguientes:

1.848.2 - servicios de oficina flexible, "coworking" y centros de negocios: 14

2.864 - Escritoras y escritores y guionistas: 76

2.869 - Otras y otros profesionales relacionados con las actividades artísticas y culturales no clasificadas en la sección tercera: 13

2.889 - Guías de montaña: 12

3.034 - Compositoras y compositores, letristas, arreglistas y adaptadoras y adaptadores musicales: 12



Zergen foru arau orokorra – SEPEri datuak lagatzea

SEPEk azken 3 urteetan guztira egin dituen zerga datuen kontsultak honako hauek izan dira:

2021: 6.621

2022: 6.125

2023: 6.081

Norma foral general tributaria – cesión de datos al SEPE

El número total de consultas de datos tributarios realizadas por el SEPE en los 3 últimos años ha sido el siguiente:

Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura

Foru dekretu-arau honen bitartez onartutako aldaketek hainbat helburu zituzten, eta esan daiteke, oro har, helburu horiek bete dituztela.

Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados

Las modificaciones aprobadas por este decreto foral-norma buscaban diversos objetivos, y se puede decir, que a grandes rasgos han cumplido con los mismos.

Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako araugintza garapenik egin behar izan.

Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de realizar ningún tipo de desarrollo normativo.



Laburbilduz

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, bere helburuak lortu ditu, ez da inolako arazorik izan hura aplikatzean, ez du ezbehar berezirik izan, eta orain arte ez da judicializatorik egin haren aplikazioan.

En resumen

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, ha cumplido sus objetivos, no ha habido ningún tipo de problemas en su aplicación ni ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.